

OSDAGUNEKO ERAKASKERA
1995-96

ELHEKETA - ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Piarres eta Ganix nola ari dira lanean
2. Zer iduri dute Gantxume tipikuekin.
3. Idazlaria nirego da Hegilez eta Apinilez, zertako?

II

PIARRES

LANEAN 2

Geroxago oraino, lasterrez, oro landan izanen ziren, artho bizardun zohituen eta azken ilharren biltzeko; artho buru hetaz erranen baitzintuen, beren zango luzeen gainean ikusi eta, lehenagoko atxoek kiloak,⁵ ixtupaz edo beren ilez betherik, oro han landatuak gelditu zirela Oihanaldeko alhorrean.

Etxe aintzineko iastorrean⁶ hedatu behar ziren artho zangoez bertzeak erretzen zituzten gero landaren erdian, eta Piarres eta Ganix, su handi haren aldean, beren sardiak eskuan, urrunerat... an-naburrean ikusiko zituen arrotzak bazuken bilharamuncan zer konda; baizik eta, Senperen, bazirela oraino lehenago non nahi Lapurdi guzian kausitzen bide ziren sorgin itsusietarik. Heterik bat -Gantxume tiikia- jauzteka erkatz-gider⁷ baten gainean ikusi zutela, beren begiez ikusi bertze bi sorgin aldiz, sardi handi batzu eskuan, ifernuko su-handi baten harrotzen ari, putinka⁸ hek ere!...

Hazilako aro ederretan, ogiak egiten ziren, urriko lehen igandean elizan benedikatu haziarekin ongi nahastekatu ondoan. Aitak, bi xotx elgarrekin bihurritz josirik, kurutze tiiki batzu moldatzen zituen eta, gero, han hemenka landatzen, alhorraren⁹ erdian. Piarres eta Ganix azienden biltzen ari ziren artean. Gantxume -Xuriko xanpa eta xanpa bere aintzinean- harat hurat lasterka zabilan, haziaren usainerat pisu pisua eta karrankaz ethorri beleak ohildu beharrez. Eta orai, bazoazin oro barnerat, uztailan bilduko zuten ogi ederra, Jainkoaren menturalat, han, kanpoan utzirik.

Aphirilaren helduriez, eremu ederra eraiten zen gero bazka ferdez:¹⁰ olo,¹¹ alfubria¹² edo zingila.¹³ Anhartean, harbi hostoak han ziren eta hostoen ondotik harbi-buruak, Oihanaldeko aziendek gosc... altzeko beldur guti baitzuten, beren heia¹⁴ idor eta beroan. Heia hartako laza¹⁵ handieri behiti irni-armu sare bat ez zen dilindan ikusten, Piarresek sinheste guti zuelakotz arras, ezul tzar bat azienderi emaitako baizik ez diren girgilleria zikin hetan.

III ADITZ IKASKUNTZA.

- | | |
|--------------|----------------------|
| 31. Bazuken | 32. Lasterka zabilan |
| 33. Bazoazin | 34. Bazutuen. |

31. UKAN - Potentiel Imparfait.

<u>CDS</u>	<u>C.D.P.</u>
Nik nukeen = je pouvais l'avoir	niruzkeen = je pouvais l'avoir
Hek hukeen = tu pouvais l'avoir	hiruzkeen = tu pouvais l'avoir
Zuk zinkeen = on pouvait l'avoir	zinzuzkeen = on pouvait l'avoir
Harek zukeen = il pouvait l'avoir	zuzuzkeen =
Guk ginkeen = nous pouvions l'avoir	ginzuzkeen =
Zuek zinketen = on pouvait l'avoir	zinzuzketen =
Heiek zuketuen = ils pouvaient l'avoir	zizuzketuen = etc.

32. IBILI - Indicatif.

<u>Present</u>	<u>Imparfait</u>
Ni nabila = je marche	Nindabilan { je marchais
Hi habila =	Hindabilan {
Zu zabilza =	Zinabiltzan {
Hura dabila =	Zabilan {
Gu gabiltza =	Ginabiltzan {
Zuek zabilzate =	Zinabiltzaten {
Hek dabilza = etc	Zabiltzan. etc

33. JOAN - Indicatif.

<u>Present</u>	<u>Imparfait</u>
Ni noa = je vais	Nindoan = j'allais
Hi noa = tu vas	Hindoan = tu allais
Zu zoatzi = on allait	Zinoatzen {
Hura doa =	Zoan {
Gu goatzi =	Ginoatzen {
Zuek zoazte =	Zinoatzen {
Hek doatzi = etc	Zoatzen etc.